

B

BARREN

Konkistatzaileak Izarraitzen

TOKIKOM





DBH
amaizera
Zoaz? Orduan
zure aukera izan
daiteke **Erdi Mailako
Heziketa Zikloa**
ikastea...

ala..
BATXILERGOA
amaizera zoaz?
Orduan zure aukera
izan daiteke **Goi-Mailako
Heziketa Zikloa (2 urte)**
eta lanera edo ikasten
jarraitzea...

... goi-mailako
Heziketa Zikloa
amaitu duen ikaslearentzat
pentsatutako **INGENIARITZA**
duzu **IMHn:**
Txandakako Ingeniaritza
(ikasi eta lan)



Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu
- Elektromekanikoa

berria

Goi-maila (D eredua)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko
- Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia*

berria

Gradu berria:

- Prozesu eta Produktu
- Berrikuntzaren Ingeniaritza
- (bideratzen)

Ate irekiak: apirilaren 21 ean, 11:00etan

etortzeko deitu **943744132ra** edo apunta zaitez **www.imh.es** orrian

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Aupa, Regi!

Azkenaldi honetan triste samar zaudetela antzematen jatzue, eta guk ez zaituztegu horrela ikusi nahi. Helburu komun baten aurrian gaoz, bai zuek eta gu, zuekin batera. Eta helburu hori, gaiñera, aski ezaguna da danontzat: irautia, eustia, borrokatzia, berezko nortasuna ateratzia...

Jakin badakigu ez zeratela ligako talderik onena, eta ez dogu nahi gaiñera, zertarako? Ez al digu denoi emozio gehixago ematen talde handi bati irabaztiak? Edota dana aurka dogunian, indarrak ezerezetik atera eta gol irabazlia sartziak?

Zuek talde txiki eta apala osatzen dozue, eta guk berriz, adin ezberdiñetako lagunez osatutako zalapartari-taldia. Elkar-konektatzen dogunian, ordia, sinbiosian gaoz, zuek nola, gu hala. Danok gera bat, danok gera handi, danok gera Regi!

Hemendik aurrera gaiñera, indartsuago egingo gera, aldeko zein kontrako egoeretan, badakigulako zer geran, nondik gatozen eta zer nahi dogun. Zelaira ateratzian, aldagelan ahiztu bakoitzan arazo eta taldeko liskartxo zentzugabiak, ez baitira lagungarriak izango. Kontzentratu, gure laguntza sentittu eta dana eman, guk ere hala egingo dogu-eta! Gogoratu Trintxerpe, Ondarru, Zumarraga... Bertan erakutsitako gogua eta izaera zuen barrenian daoaz, aterazue ba! Irribarre batekin jolastu, galtzen ikasi dogu eta orain irabaztia tokatzen da! Ez ahaztu, Regi Hools beti zuekin! Danok gera bat, danok gera Regi!

Amaitzeko, Alkorta eskubaloi taldiari zorionik beruenak, lorpen paregabia egin baitozue, eta jakiñ, gu ere Forging Hools gerala! Gorde indarrak faserako!

Iker Izeta eta Ibon Oteiza, Regi Hools taldearen izenean



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Galtzen ikasi dogu eta orain irabaztia tokatzen da.
Ez ahaztu, Regi Hools beti zuekin! Danok gera bat, danok gera Regi”**



ESKERTZA

FCO. JAVIER BILBATUA CHASCO

*Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



Estiren lagunen gurasoak

2012ko martxoaren 28an hil zen,
59 urte zituela.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDIARDO UDALA



AIRE AIRE 12



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gezurra ari du atez ate I

Gezuraren definizioa: nahita, norberanismoz eta fede ez oso onez, emandako argumentu okerra. Hainbat gezur ari dira zabaltzen atez ateko zabor bilketaren inguruan. Urko Apaolaza herriari baimenaz hemen nagusienak:

Zikina da. Hori dioenak ez du inoiz bere etxeko komuna garbitu, ez ditu bazkaritako ontziak garbitzen. Organikoarentzako kuboak norberarena da, hala ulertzen dugu, eta platerak, komun-zuloa edo leihoak garbitzen diren moduan garbitzen da kuboak.

Kiratsa dario. Gezurra borobila. Organikoari ez dio denborarik ematen usainik botatzeko, maiztasunez jasotzen delako. Paperak, plastikoenak eta janariak poltsa itxi batean nahastuta jartzen badira, orduan bai, orduan usaina azkar zabaltzen da. Atez atekoak hori saihesten du.

Ez da eroso. Jakina, eta txamarra eta botak jantzita euripean ibili behar izatea kontenedorea dagoen tokiraino, oso eroso da. Kontenedoreko tapa astun eta zikina (hori bai zikinal) altzatzean hainbat egunez usteltzen egon den zaborraren (hori bai zaborral) perfumea usaintzea, oso atsegina da. Atez atekoa egiten dugunok etxeko zapatilatan jaisten dugu "basura", santiamen batean. Gure barrioko blokeetan nola egingo da ba? Hernaniko kaxkoan egiten bada, edozein tokitan egin liteke. Bi urteren buruan behin bakarrik utzi digute kuboak jaso gabe, 2011ko azaroko uholde handiak izan zirenean. Atez ateko bilketak herri txikietarako baino ez duela balio sinetsarazi nahi izan dute errausketa-zaleek. Baina sistema malgua da eta edozein tokitan egin liteke: ordutegiak moldatuz, espazio fisikoak egokituz, garraio sistema samurragoak erabiliz...

Mendaro Zero Zabor ☞

Udaletxeak diruz laguntzen du Eliza Katolikoa?

Elgoibarko Udalarri eta bertan ordezkatuak dauden alderdi politikoei:

PPko zinegotziari BARRENeK egindako elkarrikeria irakurri eta gero, galdera bat egin nahi nizuke. Egia al da Elgoibarko Udalarri diru-laguntza ematen diola Elizari? Zein kontzeptutan? Zein da arrazoiak? Galderon arrazoiak zera da:

1) Diru-laguntza hau ematen bada, eztabaida udaletxean eman.

2) Laizismoaren behararen eztabaida zabaldu. Alegia, Estatu Akonfesional batean bizi garen ez, ezabatu Administrazio Publikoek edozein konfesio erlijiosori ematen dizkieten diru-laguntzak (Katolikoa barne).

3) Udaletxeak ez ematea inongo konfesio erlijiosori diru-laguntzarik, horrek Administrazioaren funtzioetatik at beharko lukeelako egon.

Besterik gabe, erantzunaren zain gelditzen naiz.

Iñaki Kortabitarte ☞

Elgoibarko alkateari

BARRENeK irakurri dut pintada batek molestatu egin zaituela, Udalarri kostu handia eragiten diolako. Pintada hau zehazki Ainara preso politikari harrera egin zitzaion eguneko zen, eta "Ongi etorri, Ainara" irakurri zitekeen. Harritu egin nau zure protesta horma batean margotzeagatik izatea, eta ez Ainaren atxilotetak eta espetxeratzeak eragin zirela sufrimenduagatik. Izan ere, hamazazpi hilabete pasatu ditu bahituta Madrilgo Alcalá Meco kartzelan, eta bere delitu bakarria gaztea, abertzalea, independentista, ezkertiarra eta feminista izatea da. Zuk hori soberan dakizu, baina zure protestarik ez dut entzun, ezta irakurri ere. Gogorazazi nahi dizut EAJri esker jasan behar izan ditugula euskal preso politikoen sakabanaketa eta egoera honek sortzen dituen arazoak. "Ongi etorri, Ainara" pintada iraingarria iruditzen zitzazula? Jakin ezazu esaldi horrek sentimendu asko adierazten dituela: maitasuna, adiskidetasuna, elkartasuna, konpromisoa... Nire ustez mindu zaitu zuk inoiz ez duzulako jasoko horrenbeste maitasun, adiskidetasun edota elkartasun.

Beste gauzatxo bat ere aipatu nahi dizut Arnaldoren aldeko pankartari buruz: berau ez da jarri Udalarri borondate onez baimendu duelako, izan ere, baimena herriak eta gizarteak eman du, eta herri honek horrela eskatu du. Udaletxeko balkoia Arnaldorena, Ainaren, Sebasena, Mendirena eta Josurena ere bada; udaletxeko balkoia herriarena da, ez ahaztu hau inoiz, zu ez zara udaletxearen jabea, udaletxea herriarena da.

Nerea Urbieta ☞



Iñigo
Lazkano

Zer moduz jua da Aste Santua, Don Angel? Klientela gehixago somatu al dezu elizan? Krisisan ondorioz, akaso? Ni ez naiz hemendik mobittu. Mendaron erregia baiño hobeto bizi naiz eta ez dakat hamendik jaungoikoetxea jua biharrik zorientsu izateko.



Angel
Bazterretxea

Iñigo, Elizan aspalditik dator krisia. Ez da oraingoa, eta horregatik lasai ibiltzen gera. Zu ez zera hemendik mobittu, baiña hala ere, ez zaittuz gure inguruan ikusi. Turismoko ardura-dunek irakurtzen baldin badute zure idatzia, ez dira konforme egongo. Baiña bakoitzak bere ikuspuntuak ditu, eta zuria hor dago. Bestela, hemen gabiltza, gauza asko ulertu eziñik. Adibidez: Krisia gora, krisia behera egunero hainbat gauza triste entzuten, kezkek nonnahi, estutasunak ittotzeko modukuak eta abar. Zuk esaten dezu nola joan daittekeen bost egunerako opor modukuak pasatzera, zoazen lekura iritsi orduko, itzuli egin behar dalako, eta nahiago dezula zure betiko inguruetan ibili, lasai-lasai gozatuz.

Baiña uste det gizartian gehixengo batek ez duala nere moduan pentsatzen... Bestela eziñ neike esplikatu periodikuan ikusi berri ditudan datuak. Turismuan zifrak sekula izan diran onenak omen dira sasoi honetan. Bost egun dira, barren!!! Juaterako atzera berriz ere bualtatu egin bihar dezu-eta!!!

Bost hilabete kostatzen dana aurretzen, bost egunian fundiduko debe, *kasakristora* juaten, etxe onduan dauden parajien oso antzeak ikusteko, berdin edo okerro janez eta lo ere... etxeko ohian baiño hobeto, iñun ere ez!!

“Mendaron erregia baiño hobeto bizi naiz eta ez dakat jaungoikoetxera jua biharrik”

Zelai berde baten, lau arbola eta alkarri jotzen dauden bi harri ikusiko dittue eta *Oooh! Que maravilla, chica!!! Precioso!!!*. Lastur aldian ikusi ahal diran bezalakuak, baiña klaro, Suitzako *Shchffahussenberger* bezelako izen aldrebesa dakan baillara baten daudenez, ba...

Jende askok ba ete daki Etumeta-Erdoizta aldian zelako zelai eta bistak dauden? Baiña klaro, hori Errezil onduan zela daguan, ba... *Hor ximor useina jaok...*

Bueno, sermoia amaitzera nixe, bestela berriz ere esango didate Mendaroko abade suplentia naizela. Orañ gaiñera bake-epaille lanak egittia tokau jata eta ezkontza bat ere badakatenez... Eta hori ez naizela ostixak partitzen hasi! Oraindik...

“Bateren batzuk *pueblerinoa* zerala esango dute, eta beste batzuek ondo zabiltzala”

Zer esango dizut, ba? Danetako iritziak jasoko dittuzu komentario-ak egitten badittuzu. Norekin egoten zerala, bere iritzia azalduko dizu, beste batekin baldin bazaude, beste iritzi bat. Eta horrela jarraitu bihar. Zuk zeure iritzi horri jarraitu, eta kitto! Bateren batzuk *herrixikioa* zerala esango dute, hau da, *pueblerinoa*, eta beste batzuek ondo zabiltzela esango dute. Hor konpon besteen esanak. Zu konforme baldin bazabiltza, jarraitu horrela, eta zeure inguruetan gozatu.

Azkenik, nola konpontzen zera epaille lanetan? Bateren batek abadiaren ordezkua zerala esan dizula komentatu didazu. Horretan ez eduki kezkarik, nik gustura lagako dizut zeure ofizio berri hori, udaletxean ez ezik, elizan ere bihar bezela bete dezazun.

Beno, Iñigo, ondo ibili Mendaroko parajietan, baiña noizian behin, irten Mendarotik, eta Debara edo Mutrikura edo gure inguruetako herrietara osteratxuak egin. Krisia pasatzen darian ikusiko degu Alaskara edo Australiara, edo zeñek daki, ilargira juango geran! Bittartian jarraitu umoretsu.

III. URTEURRENA

ITZIAR JUARISTI ZABALA

2009ko apirilaren 6an hil zen.

“Beti izango zaitugu gogoan”

Familiakoak





LAURA DAQUINTA

“India garapen prozesuan dago une honetan eta ez dut uste krisia igarri dutenik”



Laura Daquinta eta Alex Aranzabal orain dela zazpi hilabete joan ziren Indiara, lan kontuengatik. Alexek lan egiten duen enpresak Indiako enpresa batekin egin du hitzarmena, urte eta erdi egin beharko dute han gutxienez. Pune herrian bizi dira, Maharashtra estatuan, Mumbai hiriburutik 150 kilometrora. Langabezia tasa hain handia den egoera honetan, kanpoan lan egiteko aukera eskaintzen diete-nei zalantzarik gabe joateko gomendioa egiten die Laurak. Aste Santuko oporretan herrira itzuli dira, eta BARRENEKIN hitz egin dute beraien esperientziari buruz.

AINHOA ANDONEGI

Lan kontuek Indiara eramán zaituzte. Gogorra izan zen erabakia hartzea?

Oso azkar hartu genuen erabakia. Hitza ez da *gogorra*; nik esango nuke *zaila* izan zela: familia, lagunak, amalurra, bizimodua edota kultura uztea beste mundu batera joateko, zaila da. Bidaia eguna hurbildu ahala beldur handia sartu zitzaigun. Gainera, India ezagutzen zuten pertsonak oso txarto hitz egiten ziguten herrialde honi buruz, eta eskerrak ematen dizkiet; infernua espero nuelako eta azkenean ez da hain txarra! Esperientzia ezinhobea izan dugu.

Punen bizi zarete. Nolakoa da hori?

Bizi kalitateari dagokionez Indiako bigarren hiria da Pune, baina India beste mundu bat da: pobrezia eta zikinkeria dira nagusi bazter guztietan, kutsadura jasanezina da, hirigunean behiak, txerriak, ardiak eta bufaloak lasai-lasai ibiltzen dira, eta trafikoa zoratzekoa da. Bestalde, dena kolorez beteta dago, eta honek orekatzen du beste guztia. India desastre hutsa da, baina badauka zeozer. Indiarrek atzarritarrak maite dituzte, eta oso erraza da hemen integratzea. Ondo hartu gaituzte, baina ez dira fidatzekoak. Nahiko interesatuak dira, eta beti diruaren zain daude. Guk daukagun adiskidetasun kontzeptua, hemen ez dago. Zorionez, 15 edo 20 euskaldun gaude Punen, eta oso-osoz pozik bizi gara hemen.

Nolakoa da horko bizimodua?

Indiako bizimodua oso desberdina da, maila ekonomikoaren arabera. Langile ez-kualifikatuen hileko soldata ehun eurokoa da, eta astean 48

ordu egiten dituzte lan. Ezkontzak hitzartuak dira (hinduen artean), eta gutxienez bi ume edukitzea derrigorrezkoa da. Emakumeek senararen baimena behar dute denerako, eta ume asko ez dira eskolara joaten. Jende asko kalean bizi da, txaboletan; slums deitzen diren txabola auzoetan. 24 hizkuntza hitz egiten dira hemen, nahiz eta ofizialak hindua eta ingelesa diren. Biztanleen gehiengoak ez dauka ikasketarik, eta horiek ez dakite ingelesez. Guk ingelesez egiten dugu, eta Raju gure gidariak laguntzen digu indiarrek ulertzen. Janaria, bestalde, espereziaz beterik egiten dute eta askotan ez dakigu zer jaten dugun ere! Nik denetik jaten dut, baina jateko indiarra ez da nire gustukoena. Eskerrak Punen jateke aukera zabala dugun.

Indiako kulturak badauka euskaldunarekin antzekotasunik?

Ez, guztiz diferenteak gara: oso erlijiosoak dira eta erlijioak eragin handia dauka beraien bizimoduan eta portaeran. Maila desberdintasun handiak daude, eta botereak ez dio begiratu ere egiten azpitik dagoenari. Bestalde, oso kuxkuxeroak dira, eta dena jakin nahi dute. Egia esan, ez dago loturarik Euskal Herriaren eta Indiaren artean. Merkatalguneetan soilik sentitzen naiz etxean bezala! Bizitzeko, dudarik gabe, nahiago dut Euskal Herria, baina Indiako esperientziak merezi du. Familia, lagunak, mendia, urdaiazpikoa, hotza, gidatzea eta poteoak faltan botatzen ditut.

Indiara joan behar duenarentzat gomendiorik?

Burua ondo prestatzea. Hasieran oso inpresio gogorra egin dezake:

**“Bizitzeko nahiago dut
Euskal Herria, baina Indiako
esperientziak merezi du”**



pobrezia, umetxoak kaleetan bizitzen baldintza penagarrietan, zaborra, usain txarra... Pazientziak beterik etorri behar da, pazientzia kiloka!

Euskal Herriko enpresetako jende asko joaten da Indiara lanera. Industria garrantzitsua da Indian?

Bai. Gure lagun taldean 15 edo 20 euskaldun gaude Punen. Gure hirian automozioa eta informatika enpresa asko dago, eta jende asko ari da etortzen kanpotik. Bai, Punen industria garrantzitsua da.

Krisia igarri dute Indian?

laz ia % 10eko hazkundea izan zuen Indiak. Une honetan India garapen prozesuan dago, eta ez dut uste hemen krisia igarri dutenik.

Zeintzuk dira indiarrek dituzten beharrik nagusienak?

India oso azkar garatzen ari da, eta azpiegiturak atzeratuta geratzen ari dira. Umeen lana desagertu beharko litzateke, korrupzio maila gutxitu, garbitasuna handitu eta kutsadura murriztea ere oso garrantzitsua izango litzateke.

Besterik?

Krisi egoera honetan eta langabezia tasa hain altua den honetan, kanpoan lan egiteko aukera ematen dietenei aukera hori aprobetxatzeko esango nieke. Hasieran beldurra ematen du, baina sekulako esperientzia da, eta merezi du.



166.200 euroko diru-laguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarra kultur elkarteari 2012. urtean

Hitzartutako egitasmoen aurrekontuaren %37,7 finantzatzuko du Udalak

Elgoibarko Udalak 166.200 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra kultur elkarteari, iaz baino 23.927,60 euro gutxiago, alegia. Bi Udal sailetatik jasoko du laguntza kultur elkarteak: Euskara Sailetik eta Gazteria Sailetik. Diru-laguntza horri esker, hitzartu dituzten egitasmoen aurrekontu osoaren %37,7a finantzatzuko du Udalak.

Euskara Sailak 106.200 euroekin lagunduko du elkartea, eta, bestek beste, ondorengoak finantzatzuko dira sail horretatik: Hedabide Saila (BARREN astekaria eta www.elgoibarren.net

webgunea), Kiribilka, Bertso Eskola edota Jolasean egitasmoa, Tertuliak programa eta Gabonetako bertso jaialdia.

Gazteria Sailak bideratutako laguntza, berriz, Atxutxiamaiak egitasmoari dagokio, eta urteko sasoi desberdinetan egin ohi dituzten udalekuak antolatzeko, nola plazan urtean zehar egiten dituzten ekintzetarako laguntza izango dira Gazteriak emandako 60.000 euroak.

Elkartearen esker ona Udalari

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eskerrak eman dizkio Elgoibarko Uda-

lari: "Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko, eta, aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu nahi dugu. Izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haur eta gaztetxoaren aisia hezitzailea indartu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatu nahi baditugu", adierazi dute elkarteko arduradunek.



DIRULAGUNTZAK PROIEKTUKA:

- BARREN astekaria eta www.elgoiBARREN.net webgunea 57.600 euro (aurrekontu osoaren %22,19).
- Aisialdia 41.600 euro (aurrekontu osoaren %79,56).
- Bestelakoak (Tertuliak programa, Bertso jaialdia, Santa eskea, Ikastolen aldeko jaietarako autobusak, Udazkeneko kultur eskaintza) 7.000 euro (aurrekontu osoaren %37,10).
- Atxutxiamaiak egitasmoa 60.000 euro (aurrekontu osoaren %54,47).

Euskotrenek autobus zerbitzu gehiago eskainiko ditu Debabarrenean

Garraio publiko zerbitzua hobetzeko, autobus zerbitzu gehiago eskainiko ditu Euskotrenek Debabarrenean. Hilaren 16tik aurrera, beraz, Elgoibartik Mendaroko ospitalerako autobusak hogeitun minuturo izango dira. Zapatuetan, berriz, Mallabitik 23:00etan aterako da azken autobusa Mendaroraino, eta 22:10ean Ondarroatik Ermuraino doana. Udan, bestalde, ordubetero egongo da Ondarroaraino joateko autobusa, astelehenetik ostiralera. Elgoibartik Azpeitira joateko eta etortzeko ere autobus bat gehiago izango da astean zehar, eta asteburuetan autobus kopuru berbera mantenduko da, baina ordutegi berriekin, zerbitzua eraginkorragoa izateko. Era berean, Eibar-Deba Express zerbitzua kendu egingo dute, erabiltzaile gutxi dituelako. Aldaketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Sailaren eta Eusko Tren enpresaren arteko akordioaren ostean datoz. Datozen egunetan markesinetan jarriko dituzte ordutegi berriak, baina nahi izanez gero, www.debegesa.com webgunean dituzue ikusgai.

Urteurrena **Gernikako bonbardaketa**

1936ko Gerraren baitan Gernikako bonbardaketa aski sonatua da Euskal Herrian, baina Gernika ez ezik, Euskal Herriko beste herri asko ere bonbardatu zituzten orduan. Hori horrela, eta 1937an egindako bonbardaketa horien 75. urteurrena dela kontuan hartuta, Gazte Asanbladak eta Elgoibar1936 elkarteak elkarlanean bideo emanaldia eta hitzaldia antolatu dituzte gaur gauerako. Gaztetxean izango da ikus-entzunezko emanaldia, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, Eibarko bonbardaketaren bideo bat ikusiko dute lehenengo, eta Elgoibar1936 elkarteak kide den Iñaki Odriozolaren hitzaldia egongo da ostean. Elgoibarren gerra nola bizi izan zen, bonbardaketak nolakoak izan ziren edota gaur egun oraindik ere herrian dauden ikur frankistak izango ditu hizpide Odriozolak.

Lekua **Pedro Migel Urruzuno kalea**

Udaleko Hirigintzako arduradunek jakinarazi dutenez, datorren astelehenean, apirilaren 16an ekingo diete Pedro Migel Urruzuno eta Lorituaneko aldaparen berritze lanei. Hasiera batean kale osoa berritzeko asmoa zuten arren, erre zen etxeko lanak direla-eta, arduradunek adierazi dute ezinezkoa dela kale guztian obrak egitea eta alda-pa eta kalearen zati bat baino ez dituzte konponduko oraingoz. 206.000 euroko aurrekontua dute lanek eta hiru hilabeteko epean amaituko dituztela jakinarazi dute Udaleko ordezkariak.



Irudia **Prozesioa**



Aste Santuak berarekin ekarri ohi ditu ospakizunak, eta horien artean ezaguna den pazko domekako prozesioak jarraitzaile ugari bildu zituen beste behin ere, herriko kaleetan.

Udal tramiteak on-line egiteko aukera

Elgoibarko Udalaren atari digitalean lehen baino Udal tramite gehiago egiteko aukera izango dute herritarrek aurrerantzean.

Orain artean ere herritarrek bazuten zenbait tramite Internet bidez egiteko aukera, eta eskaintza hori handitu egin du Udalak. Aurrerantzean, udal espedienteak, erroldatze datuak, fakturazioak edota herritarrei eta enpresei igorritako isunak kontsultatzeko aukera eskainiko du www.elgoibar.org atariak. Era berean, Nire Ordainketa sistemari esker ordainagiriak eta isunak ere webgunearen bitartez ordaindu ahal izango dira.

Floren Aoizek Elgoibarren emandako hitzaldia entzungai sarean

Arnaldo Askatu Politika Askatu herri plataformak antolatutako Floren Aoizen hitzaldia entzun daiteke sarean, www.arnaldotegi.com atarira sartuta. Jende ugari izan zen Independentistak sareko kideak Kultur Etxean emandako hitzaldia entzuten, baina, hala ere, norbait joan ezinda geratu bazen atarian entzungai dagoela jakinarazi dute plataformako arduradunek.

Autoen gidatze ekonomikorako ikastaroa bihar, Mendaron

Zerikasi elkarteak autoen gidatze ekonomikoa bultzatzeko ikastaroa antolatu du biharko. Ikastaroaren helburua autoa erabiltzerakoan energia aurrezten eta erregaiaren kontsumoa gutxitzen ikastea dela adierazi dute antolatzaileek. Euskadiko Energia Elkar-teko kideak izango dira ikastaroa emango dutenak, eta bertan parte hartzeko gomendioa egin dute antolatzaileek.

Bihar, zapatua, izango da ikastaroa Mendaroko udaletxean 9:30etik 13:30era.

30etik 1.500 eurora arteko isunak jarriko dituzte udaltzainek txakurrak solte eraman edo haien kaka ez jasotzeagatik.

Zer iruditzen zaizu txakurren gaineko ordenantza berria?



Borja Diez
20 urte

Ondo iruditzen zait. Txakurra daukanak txakur kakak jaso egin behar dituela iruditzen zait, eta horrela herriko kaleak garbiagoak izango ditugu. Ni ez naiz oso txakur-zalea eta lotuta eraman behar direla iruditzen zait, arraza arriskutsuko txakurrak bereziki.



Gloria Arriola
76 urte

Oso ondo iruditzen zait. Txakurra daukanak ardurak hartu behar ditu. Jabeek beti esaten dute euren txakurrak ez duela ezer egiten, baina edozer gertatu daiteke. Umeak dabilzan inguruan behintzat lotuta eraman behar dira. Eta txakurren kaka batzea ere beharrezkoa da.



Isabel Sanchez
74 urte

Gaizki, eta oso haserre nago. Nik bi txakur txiki dauzkat eta lotuta eramaten badituzte ez dute pixa ere egiten. Ordenantza martxan dagoenetik gaizkileak bagina bezala zaintzen gaituzte udaltzainek. Herrigunean lotuta eramatea ulertzen dut, baina Mintxetan edo bidegorrian gehiegizkoa iruditzen zait.



Elisabeth Romero
27 urte

Gehiegizkoa da. Arraza arriskutsuko txakurrak lotuta eramatea ondo dago, baina txakur txikiak solte eramatearen aldekoa naiz. Jabeak txakur arriskutsua duela uste badu, lotu dezala. Nik arratoi txakurra daukat, eta orain arte solte eraman izan dut beti. Kakak ere beti batzen ditut.

■ SEMAFOROA



Altzolako zuhaitzak kimatu egin dituzte: "Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu Altzolako Urak enpresako langileei, gure auzoko zuhaitzak kimatu dituztelako. Mila esker".

Txalo bero bat Gipuzkoako Selekzioarekin Hondarribiko txapelketa jokatu duten Sanloko jokalariei: "Nagore Rodriguez, Uxue Manzisidor, Alejandro Beraza, Eneko Barruetabeña eta Imanol Albizuk Gipuzkoako eskubaloi selekzioarekin jokatu zuten joan den asteburuan, eta oso maila ona erakutsi zuten. Partida bikaina jokatu zuten, eta bigarren lekuan amaitu zuten txapelketa. Guretzako txapeldunak zarete"



Osasun Zentroa eta San Roke arteko igogailuaren ostean dagoen zubia oso labainkorra da: "Euria egiten duenean oso labaina jartzen da igogailuaren ostean dagoen zubia. Inork min hartu aurretik zeozer egin beharko litzateke. Mila esker".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibar/koizarra.com 943 744 112

Martxoan...

JAIO TAKOAK



Maialen Moya
Mazorriaga Martxoak 2
Aitor eta Naiara



Martin Rey Boo
Martxoak 24
Oscar eta Mari Mar



Magali Camacho
Etxeberria Martxoak 26
Ivan eta Ainhoa



Ifigo eta Telmo Caballero Machado
Martxoak 16
Antxon eta Nerea



Manex Mugertza
Gonzalez Martxoak 30
Irene eta Eneko

Leire-Nayeli Franco
Barrul Martxoak 11
Francisco eta Isabel

Nadia El Khamilichi
Gonzalez Martxoak 18
Mohamed eta Belen

Irati Ansola Irazabal
Martxoak 20
Iñaki eta Itsaso

Danel Mugertza Iriondo
Martxoak 28
Estanis eta Ane

EZKONDUTAKOAK

- **Jose Miguel Prieto** eta **Ana Perez** Martxoak 3

HILDAKOAK

Jose Luis Alvarez Garcia • 34 urte • Martxoak 2
Arcadia Mendikute Muguruza • 88 urte • Martxoak 4
Maria Luisa Garay Diego • 77 urte • Martxoak 9
Gloria Maiztegi Agirregomezkorta • 89 urte • Martxoak 12
Valentin Ariznabarreta Arozena • 84 urte • Martxoak 12
Lucila Rivas Tesouro • 87 urte • Martxoak 13
Dominica Usatorre Errasti • 96 urte • Martxoak 14
Pedro Zubizarreta Ibaibarriaga • 90 urte • Martxoak 16
Juana Isasti Irusta • 93 urte • Martxoak 22
Maria Leiaristi Garate • 87 urte • Martxoak 26
Iciar Matos Muerza • 52 urte • Martxoak 26
Javier Bilbatua Chasco • 87 urte • Martxoak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalie-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora. Argazkia jartzeagatik **3 €** ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, **4 €**.



AZKONARRAK ETA ZAPELATZAK IZARRAITZI BEGIRA



Azkonarrak batetik, Zapelatzak bestetik. Haritz Arrieta kapitain batean, Asier Lizarralde bestean. Hamabost gazte denera, eta guztiek helburu bakarra: Izarraitzen konkista. Izarraitzeko lurretan eman dituzte azken lau egunak Gaz-telekuarekin eta Gaz-Terekin abentura honetan izena eman zuten gazteek, eta iragarritako eguraldiari ere hortzak erakutsita, euren konkistatzaile sena argi lagata jaitsi dira herrira bueltan.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Martitzenean joan eta gaur itzuli dira etxera Izarraitz konkistatzen jardundakoak. Hamabost gaztetxok erantzun zieten Gaztelekuak eta Gaz-Tek egindako deialdiari, eta primeran ibili dira. Gogorra izan dela aitortu digu batek baino gehiagok, eguraldiak ere ez du bere aurpegirik onena erakutsi, baina berriz itzultzeko asmotan bueltatu dira gehienak.

Antolatzaileak ere gustura, traba klimatologikoak alde batera lagata, helburu asko beteta itzuli direla adierazi dute. Ingurua ezagutzeko, talde lanean jarduten ikasteko eta naturarekin harremanean bizitzen ikasteko balio izan baitie besteak beste, abenturaz betetako esperientzia berri honek.



AZKONARRAK

Azkarrak dira Azkonarrak, azkarrak eta abilezia erabiltzen jaiok. Beste taldeari irabazteko engainua eta trikimailua ere erabili ditu-eta Haritz Arrietaren taldeak.



LEHIAN

Eguazten goizeko proban kanpamentutik Xoxoteko tontorreraino iigo behar izan zuten talde biek, hankak elkarri lotuta. Azkonarrak irabazten hasi arren, aurre hartu zieten Zapelatzekek, eta azkenerako tar- te luzea atera zieten Azkonarrei.



ZAPELATZAK

Talde indartsua eta eraginkorra dela erakutsi du Asier Lizarralde kapitain duen taldeak. Ikusi besterik ez dago eguazteneko proban erakutsi zuten indarra eta konstantzia.



KANPAMENTUAK

Talde bi dira izan dira lehian, eta hortaz, kanpamentuak ere bi. Ez dute baina elkarren antzik izan batak eta besteak. Kanpamentu aberatsa eta kanpamentu pobrea bezala izendatu zituzten. Izan ere, teilatupekoa izan da bata, eta kanping denda bestea. Izenak ez die, ordea, erosotasunari erabat erantzun. Konkistatzaileen esanetan, egokiagoa izan baita hasiera batean kanpamentu pobre moduan izendatutakoa. Aberatsean lo egindako- ek pasatako hotzak erakusten du hori ondoen.



Kanpamentu aberatsa



Kanpamentu pobrea



Erretratu zaharra



1958

Aste honetako erretratu zaharra 1958. urtekoa da, eta Lucia Arrietaren ezkondu aurreko agurrean aterata dago. Lagun koadrila ederra bildu zen eguna ospatzeko, eta oso ondo ibili zirela gogoratu du. Gogora ditzagun emakume horien izenak. **Goian, ezkerretik eskumara:** Mari Karmen Azkue (†), Mari Karmen Araolaza, Txaro Aizpiri, Felitxu Esnaola, Maria Luisa Urrutia, Maria Luisa Garate eta Maria Luisa Bedayo (†). **Erdian:** Pilar Agirrezabal, Sabina Arrieta, Rosario Arrieta, Lupe Torre, Martina Iriondo (†), Benita Arriola (†), Maritxu Agirregomezkorta, Ana Mari Irureta, kanportarra, Maritxu Iriondo, Anita Arzak, Mari Tere Unzueta, Pepi Arzak, Mari Tere Iriondo. **Behean:** Begoña Mugertza, Celia Juaristi, Lucia Arrieta, Maria Luisa Garate eta Kontxita Arrieta.



I. URTEURRENA

FELI ERRASTI VILLAR

2011ko apirilaren 13an hil zen, 84 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 14,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

MARIA SUAREZ ECHEVERRIA

2012ko apirilaren 6an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EULOGIO MANCEBO

Pala jokalaria

Bizitza osoan jokatu du palan Eulogio Mancebok eta azken urteotan Lagunak Pilota Eskolako pala taldean dihardu. Ez nolana, gainera, birritan ailegatu baitira Udaberri Txapelketako finalera.

“Ikastolako frontoian bost mila partida baino gehiago jokatu ditut”

Azken bi urtetan hiru final jokatu dituzue, eta hirurak galdu. Halere, finalak galtzeko finalera ailegatu egin behar dela diote.

Bai. Txapelketak eman ditzakeen sentsazio guztiak bizitzeko aukera izan dugu. Final bat irabazteak ematen duen poza sentitzea, horixe da kendu ez dugun arantza. Halere, niri zuriz jantzita eta Lagunak taldea ordezkatzuz txapelketak jokatzek ematen dit poza. Are gehiago nire adinarekin [45 urte ditu], zenbait lagunene semeekin jokatzeko suertatu zaidalako. Sentsazio gazi-gozoak izan ditudan arren, oro har, gazteekin jokatzeko gaztetu eta poztu egiten nau.

Bigarren Mailan ari zarete. Alde handia dago Lehen Mailarekin?

Lehen Mailan hiru edo lau bikote daude, oso indartsuak. Apenas egiten dute hutsik, aurrean ez dute pilotarik entregatzen eta, ondorioz, tanto gehienak luzeak eta aspergarriak izaten dira. Bigarren Mailan tanto politagoak ikusteko aukera dago eta dibertigarriagoa da.

Nola iritsi zinen palara?

13 urterekin hasi nintzen palan jokatzeko. Esku pilota probatu nuen baina eskuko mina joateko bi egun behar nituela ikusita, palarekin jarraitzea erabaki nuen. 12 bat urte nituenean eraiki zuten Ikastolako frontoia eta obrak amaitu gabe zeudela, Tom Sawyerenekin eginez, obretako hesia gainetik salto egin eta han jokatzeko genuen. Harrezkero, bizitza osoan jokatu dut frontoi horretan erregulartasunez. Izan ere, astero bat, bi edo hiru ordu alokatu izan ditugu urte guzti hauetan. Kontuak atera ditut eta Ikastolako frontoian 5.000 partida baino gehiago jokatu ditudala atera zait!

Astean lau ordu, 200 partida urtean; 35 urtean... ba horixe!

Andoni Etxeberriarekin eta Unai Leiaristirekin osatu duzu bikotea. Zein dira bakoitzaren ezaugarriak?

Andoni "erabateko makina" da. Surfean eta atletismoan aritutakoa da eta fisikoki indartsua da oso. Edozein kiroletan ondo moldatzeko dohainak dauzka. Bost urte bakarrik daramatza palan jokatzeko eta bere neurriko bikotea balu, Lehen Mailan jokatzeko moduko kirolaria da. Unai, berriz, atzelari batek izan behar dituen ezaugarriak dauzka: erregulartasuna eta indarra. Eta agintzen ere badaki.

Duela gutxi sortu zen Lagunak Pilota Eskolako pala taldea. Zer moduz hartu zaituzte bertan?

Hobeto ezin. Bete-betean asmatu dute taldeari izena jartzerakoan. Horrelaxe sentitzen naiz bertan, lagunez inguratuta. Taldeak egiten duen lana goraiatu nahi nuke. Ume eta gazte askori laguntzen diete, eta musutruk gainera. Beste kirol batzuetan aritzeko, futboleko edo eskubaloian, esaterako, gurasoek diru kopuru bat, fitxa, erriak eta jantziak kontutan hartuta 300 euro inguru, ordaindu behar izaten dute. Lagunak taldean izena eman eta ez duzu dirurik ordaindu behar. Gainera, arropak eta materiala klubak laguntzen ditu. Horrelakoak ez dira ohikoak gaur egun, eta eskertzekoa da. Era berean, ezinbestekoa da Udalaren laguntza.

Esku pilotaren anaia txiroa da pala?

Esku pilotaren anaia txiroak zesta eta erremontea dira, eta gomazko paleta azken hauen iloba edo izango litzateke.

Sanloko Alkorta senior mutilen taldeak lehen nazional mailarako igoera fasea jokatu du

Senior mailako mutilen bigarren taldea aurkeztu du Sanlok

Senior mutilek Egia taldeari Donostian irabazi ondoren lortu dute honenbeste desio zuten igoera fase-rako txartela. Azken jardunaldira arte itxaron behar izan zuten elgoibartarrek, baina emozioz beteriko partidaren, 29 eta 31 irabazi zuten Donostian. Honenbestez, 40 punturekin amaitu dute liga txapelketa bigarren postuan, eta lehen nazional mailarako igoera fasea jokatu dute.

Sanloko bi talde nagusiek denboraldi aparta egiten dihardute, eta biek izango



dute mailaz igotzeko aukera. Tecnifuelle emakumezkoen senior taldeak, Euskal Ligako txapelketa irabazi ostean, hil honetan jokatu ditu Zilarrezko Ohorezko Dibisiora igotzeko kanporaketak.



Pneumax talde berria

Sanlok senior mutilen bigarren taldea aurkeztu du: Pneumax. Bigarren lurraldeko Gipuzkoako Kopako lehen partidaren egin zuten estreinaldia taldeak, eta partida bikaina jokatu zuen Ordiziaren kontra, 25-15 irabaziz. Jokalari gazteek eta beteranoek osatu dute taldea.

Imanol Alvarezek bigarren postua eskuratu du Oñatiko Txirrindularitza Sarian



Alebin eta infantil mailako txirrindularien lasterketa jokatu zen martxoaren 31n Oñatin, eta bertan, Imanol Alvarez txirrindulari elgoibartarrak bigarren postua eskuratu zuen. Oñatikoa denboraldiko lehen proba izan zen, eta guztira 70 bat txirrindularik hartu zuten parte. Iaz, bestalde, alebin mailan ari zenean, denboraldi aparta egin zuen elgoibartarrak, eta, besteak beste, Eskoriatzako eta Arrasateko txirrindularitza sariak irabazi zituen. Denboraldiko bigarren proba bihar jokatu du Eskoriatzan, eta iaz alebinetan lortutako garaipena errepikatzen saiatuko da Alvarez.

Mendi bizikleta irteera apirilaren 21ean

Morkaiko mendizale elkarteak Aralarrera mendi bizikleta irteera antolatu du apirilaren 21erako. Zaldibin irten eta Amezketan bukatuko dute ibilbidea. Lazkaomenditik, Igaratzako guardaetxeraino igoko dira lehenik, eta Aralarko San Migelera joango dira gero. Atsedena hartu eta Pardeluseko iturrirantz hartuko dute bidea, handik Amezketara jaisteko. 35 kilometroko ibilbidea prestatu dute, eta hiruzpalau ordutan egitea aurreikusi dute antolatzaileek. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 12 eko. Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean.

Domekan jokatuko dute Mendaroko bigarren mendi lasterketa

Maite Maiorak bigarren egin zuen Orioko lasterketan

Mendaroko Txirrundulari elkarteak antolatuta, domekan jokatuko dute Mendaroko II. mendi lasterketa. Herriko Enparantzan izango dute irteera lasterkariak 10:00etan, eta 1350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute 24 kilometroko ibilbidean. Interesatuak www.herrikrossa.com webgunean eman dezakete izena aurrez, 15 euro ordainduta. Dena den, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 18 eurotan. Informazio gehiago, <http://mtemendaro.wordpress.com/> helbidean.



rrak 1:53:15eko denboran osatu zuen 20 kilometro pasatxoko ibilbidea. 291 lagunek hartu zuten parte guztira, eta Ionut Ailin Zinka eta Ana Konde izan ziren probako irabazleak

Maite Maiora bigarren, Orion

Orioko mendi lasterketa jokatu zuten hilaren 1ean, eta Maite Maiorak bigarren egin zuen emakumezkoetan. Mendaroa-

Realeko beteranoek Logroñesen kontra jokatu dute bihar, Mintxetan

Realeko beteranoek ligako bigarren partida jokatu dute bihar Mintxetan, Logroñes taldearen kontra. Lehenengo partidari 0-1 galdu zuten jokalaririk txuri-urdiak Santanderreko Racing taldearen kontra, eta Iparraldeko Beteranoen Liga txapelketa irabazteko behar beharrezkoa dute bihar irabaztea. Besteak beste, Pikabea, Loinaz, Luis Perez eta Eugenio Caro elgoibartarrek osatu dute talde donostiarra.

Bederatzi elgoibartarrek hartu zuten parte Azkoiti-Azpeiti maratoi erdian

Martxoaren 31n jokatu zen Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia, eta bertan bederatzi elgoibartarrek hartu zuten parte. Hona hemen haien denborak eta postuak.

- 049. Unai Narbaiza (1:17:35)
- 137. Alberto Gil (1:23:46)
- 145. Iñigo Salegi (1:24:13)
- 265. David Soto (1:29:20)
- 370. Martin Dominguez (1:32:32)
- 385. Javi Fernandez (1:32:47)
- 490. Iker Amutxastegi (1:36:10)
- 494. Alberto Garate (1:36:15)
- 643. Berex Ortiz (1:39:53)



EMAITZAK

FUTBOLA

Gernika 0 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Behobia 0 (Erreg.)
Euskalduna 5 – Elgoibar 3 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 6 – Behobia 1 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Ikasberri 3 (Kad. B)
Elgoibar 3 – Vasconia 2 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 2 – Ilintxa 0 (Inf. Txiki)
Bergara 2 – Elgoibar 1 (Aleb.)
Touring 0 – Elgoibar 1 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 6 – Laskorain 2 (2B)
MCM 2 – King-Kong Elg. 2 (Jub.)

ESKUBALOA

Egia 29 – Alkorta Elg. 31 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 25 – Ordizia 15 (Sen. mut.)
Usurbil 29 – Astigarraga Elg. 19 (Kad. nesk.)
Txariduna Elg. 34 – Amenabar 17 (Jub. mut.)
Ikus Elg. 20 – Bera Bera 5 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 15 – Ereintza B 6 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14

17:00 Real Sociedad – Logroñes (Beteranoak)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 14

16:00 Bankoa Elg. – Txariduna Elg. (Inf. mut.)

17:30 Alkorta Elg. – Usurbil (Sen. mut.)

19:00 Tecnifuelle Elg. – Zarautz (Sen. nesk.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 13

22:00 Lagunak – Arrasate (Jub.)

Patinaje ikastaroa

Kirol Patronatuak familientzako patinaje ikastaroa antolatu du, eta gurasoek seme-alabekin parte hartu ahaliko dute. Maiatzeko asteazkenetan izango dira saioak, IMHko kantxan. Interesatuak apirilaren 30a baino lehen eman beharko dute izena kiroldegian edo Mintxetako harreran. Familiako prezioa (guraso eta seme-alabak) 30 eurokoa izango da, eta banakakoa, 25 eurokoa.

Finalista Eguna

Morkaikok antolatuta, maiatzaren 12an egingo dute Finalista Eguna, eta mendi zerrenda entregatzeko azken eguna apirilaren 16a izango da. Elkarrekin Errosario kalean duen egoitzan utzi behar da zerrenda 20:30ak baino lehen.

DANELE SARRIUGARTE

Itzultzailea eta Elearazi blogaren sortzailea

Elearazi bloga sortu du Danele Sarriugarte elgoibartarrak, Garazi Arrua klasekide tafallararekin batera, eta *Sustatu.com* atari digitalean agertu ostean, nabarmen igo dira euren blogerako sarrerak. Itzulpengintza dute hizpide blogean, eta lanbidearen nondik norakoak baino gehiago hausnarketa eskainiko digute blogaren arduradunek.



“Itzulpengintzaren inguruan euskaraz jardutea nahi dugu”

Nolatan sortu duzue Elearazi bloga?

Irakasle batek aipatu zigun bazeudela zenbait blog itzulpengintzaren inguruan jarduten zutenak, eta guk ere egin genezakeela antzerako zerbait euskaraz. Hala ere, hasieran niri ideiak ez zidan interes berezirik sortu, baina gerora Garazik Elearazi sortzearen proposamena egin zidan, eta berak konbentzitu ninduen. Itzulpengintzaren munduari euskararen munduan lekutxo bat egitearren hasi ginen.

Zein da zuen helburua?

Itzulpengintzaren inguruan euskaraz jardutea nahi dugu. Hausnarketaren inguruko bloga da bereziki, euskal itzulpengintzaz eta euskal literaturaz hausnartzeko blog bat da. Izan ere, nire lagunek, esate baterako, guztiak dakite itzulpengintza ikasi nuela, baina hortik aurrera ez dakite ezer. Edo jendeak uste du liburuak baino ez direla itzultzen, eta hori ez da horrela, hemen dena itzultzen da. Beraz, hori da nahi duguna: egiten duguna plazaratu edo gizarteratzea.

Pentsatu duzue proiektu hau lanbide bilakatzea ala afiziotik heldu diozue?

Ez, oraingoz behintzat ez dugu horrelakorik pentsatu. Hasi baino ez gara egin oraindik, eta nahikoa, aurrera jarraituta.

***Sustatu.com* atariak eman du zuen blogaren berri. Gainerako eus-**

kal blogosferako kideen edo itzulpengintzaren inguruan diharduen norbaiten kritikarik jaso duzue?

Bai, Euskal Itzultzaile eta Zuzentzaileen Elkartekoei eman genien blogaren berri eta gustatu zaiela esan digute. Horrez gain, blogen ideiarekin hasi zen irakasleari ere gustatu zaio, eta bestelako web orri batzuen arduradunek ere esan digute jarraituko dutela egiten dihardugun lana. Beraz, hasiera izateko ez dago gaizki.

Sustatuk jarraitzaile ugari ditu. Atari horretan agertu izanak eraginik izan du zuen blogean?

Bai. Blogera sarrerak izugarri igo ziren Sustatun agertu ginenean.

Zer topatuko du zuen blogera sartzen denak?

Gustuko ditugun lanak itzuliko ditugu eta itzulpengintzaren inguruko geure hausnarketei ere egingo diegu lekua. Ahal den neurrian gainera, bestelako merkatuan sona handirik ez duten autoreei ere egin nahi diegu lekua.

Sona handia izan du Eusko Jaurilaritzak aurkeztutako itzultzaile automatiko berriak. Zer iruditzen zaizu?

Automatikoa den momentuan, horrek ez du balio itzultzaile batek egingo dizun lana egiteko. Automatikoak ez du kontuan hartzen kontestua ez beste ezer, eta, beraz, normalean ez du balio.

Maila ona erakutsi zuten dantzari elgoibartarrek Elgoibarko Auresku eta Soinu Zahar txapelketan

Alaitz Egañak eta Nerea Sasiainek lehen postua lortu zuten norberak bere adin tartean

Elgoibarko XI. Auresku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu zen martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, eta parte hartu zuten 72 dantzari gazteen artean Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako hamabi gaztetxo aritu ziren txapelketan.

Elgoibartarrek lan ona etxean

Bakoitzak bere mailan lan ona egin zuten dantzari elgoibartarrek Herriko Antzokiko oholtza gainean. 11 eta 15 urte arteko neska-mutilen txanda izan zen zapatuan, martxoaren 31n, eta Alaitz Egaña elgoibartarrak lehen postua lortu zuen nesketan. Kategoria berean, hurrenez hurren bosgarren, bederatzigarren eta hamaikagarren postuak lortu zituzten Ixone Juaristik, Maialen Loiolak eta Saioa Marcosek. Mutiletan seigarren egin zuen Eneko Gonzalezek eta hamargarren Julen Gillok.

Domekan, apirilaren 1ean, berriz, Nerea Sasiainek lehenengo egin zuen 7 eta 11 urte arteko nesketan, eta Amaia Astigarragak eta Miriam Ferreirok bosgarren eta hamargarren postuak lortu zituzten. Neska gaztetxoek ez ezik, 11 eta 15 urte arteko neskek ere aritu ziren txapelketan eta laugarren, zazpigarren



eta bederatzigarren postuak lortu zituzten hurrenez hurren Andrea Arregik, Miren Astigarragak eta Leire Astigarragak.

Euskal naturaren argazki erakusketa berria antolatu du Ongarri argazki taldeak



Euskal natura taldeak argazki erakusketa berria aurkeztu du Elgoibarren, eta apirilaren 9an hasita hilaren 21era bitartean ikusgai izango da Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Orain arteko lanetan Euskal Herriko fauna erakutsi digute Euskal naturakoek euren argazkien bidez. Oraingoan, ordea, animaliek naturarekin dituzten elkarrekintzak azaltzen dituzte argazkilarien lanek. Euren azaldu moduan, erakusketaren helburua ez baita soilik Euskal Herriko biodibertsitatea azaltzea, dibertsitate hori osatzen duten bizidunen arteko erlazioak azaltzea baizik.

Bederatzi argazkilariaren lanek osatzen dute erakusketa, eta tartean, Antton Alberdi elgoibartarraren lanak ere izango dira ikusgai.

Astelehenetik zapatara bitartean, 18:30etik 20:30era egongo da zabalik erakusketa.

Euskara diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Udaleko Euskara Saileko arduradunek adierazitakoaren arabera urriaren 31 arteko epea dute Euskara Saileko diru-laguntzak eskatu nahi dituztenek (enpresen eskabide epea irailaren 15ean bukatuko da). Besteak beste, euskaraz ikasteko, ikastaroak euskaraz egiteko, edota merkataritza eta enpresa munduko errotuluak euskara hutsean jartzeko edo euskarazko aplikazioak erosteko ematen ditu laguntzak sailak. Informazio gehiago nahi duenak Euskara Sailean dauka eskuragarri.

Datorren barixakuan antzerkia euskaraz

Kultura Sailak antolatuta euskarazko antzerkia egongo da datorren barixakuan, hilaren 20an, 20:30ean Herriko Antzokian. Wilt, panpina puzgarriaren hilketa izena du antzezlanak.

LANA

ESKAERA

- Psikologia eta Gerontologiako ikasketak dituen emakumea nagusiak zaintzeko prest.
☎ 635 313 375
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko pertsona nagusiak zainduz, orduka.
☎ 660 113 373
- Emakumea lanerako prest, nagusiak edo umeak zainduz, etxeak garbituz... Arratsaldez.
☎ 680 226 039
- Garbiketa lanak egingo nituzke, orduka edo interna bezala: tabernak, lokalak, etxeak... Zaintza lanak ere egingo nituzke.
☎ 698 632 922
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest.
☎ 680 971 953
- Gizonezkoak pertsona nagusiak zainduko lituzke, ospitalean ere bai.
☎ 645 555 265
- LH, DBH eta batxilergoko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak.
☎ 696 295 098
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 686 578 228
- Emakumeak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Garbiketa lanak egiteko prest, orduka edo interna. Erizain titulua dut.
☎ 669 010 359

- Emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna ere lan egingo luke.
☎ 628 665 395
- Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Nagusiak zein umeak zainduz edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo Interna.
☎ 633 150 376
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia: geriatría eta pisologia tituluak. ☎ 635 313 375
- Emakume euskalduna lan bila. Esperientzia handia jende nagusia zaintzen eta garbiketa lanak egiten.
☎ 943 742 282
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest, garbiketa lanak, etxeko lanak egingo lituzke. Jakien maneiatzaile titulua daukat sukaldean lan egin ahal izateko.
☎ 678 292 120
- Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ 636 581 194
- Emakumea zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteazken eta asteburuetan, orduka edo interna.
☎ 698 632 922
- Gizona zaintzan, garbiketan edo baserrian lan egiteko prest.
☎ 632 798 768
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Zaintza, garbiketa...
☎ 659 813 248
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan.
☎ 652 446 228

ESKAITZA

- Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa.
☎ 651 703 406
- Emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko.
☎ 670 555 294

BESTELAKOAK

- Urte beteko Schnauzer arrazako txakur bat oparitzen da.
☎ 654 406 648
- Gure bide elkarteak mahai eta aulkiak oso merke saltzen ditu.
☎ 649 622 420
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo keroxenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko!
☎ 677 898 633

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

Laster ezkontza gehigarria

Publizitatea egin nahi baduzu jarri gurekin harremanetan

B BAREN

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak, **Xabier Arriolari**, bere zortzigarren urtebetetzean, eta patxo handi bat Oierren partez.



• Zorionak, **Almar**, zure bosgarren urtebetetzean. Aittitta, amama eta gurasoen partez.




• Zorionak, **Asier**, apirilaren 1ean 10 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Alora**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Sare**, zure bigarren urtebetetzean. Etxekoan eta bereziki, Aner eta Aialaren partez.



• Zorionak, **Rebeca**, ONCEko kupoi saltzaile lanetan urtebete egin duzulako. Jarraitu asko saltzen! Bezero baten partez.



• Zorionak, **Sara**, hilaren 29an zure eguna izan zelako. Familiakoen eta bereziki, zure lagun minaren partez.



• Zorionak, **Naroa**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Muxuak familiako guztien partez.



• Zorionak, **Markell** Asteartean 4 urte beteta, mutil handi! Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Enekoren partez.



• Zorionak, **Leire!** Mila patxo 6 urteko gure printzesari. Egun polita pasatu genuen.



• Zorionak, **amama**, etxeko guztien partez. Jarraitu horren jator!



• Zorionak, **Beñat**, asteazkenean 7 urte egin zenituelako. Aupa, Zuru!



• Zorionak, **Idola**, astelehenean 6 urte egin zenituelako. Muxu pila bat familiakoen eta Yuriren partez.



• Zorionak, **Maialen**, gaur 6 urte egin dituzuelako. Muxu handi bat gurasoen eta Markelen partez.



• Zorionak, **Zugatz**, zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat Haitzart eta Laieneren partez.



• Zorionak, **Aitor**, zure zortzigarren urtebetetzean. Zorionak, futbolari! Familiako guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure zotzigarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu, Yune.



• Zorionak, **ebeko bi printzesak!** Gadeak hilaren 19an 2 urte haundi egingo dittuelako eta Marenek hilaren 15ean hiru hilabete txiki egingo dittuelako. Asko maite zaituztegu. Aita, ama, aittitta, amama eta osaba-izeben partez.



AGURREN ATALEKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€**, argazki bikoitza **6€**, hirukoitza **8€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **12€**.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **3€**, argazki bikoitza **5€**, hirukoitza **7€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **10€**.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEkobulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Bazkide izateko
hirugarren epea zabalik.
Apiriletik abuztura arteko kuota, 15€



Asteburu honetan,
Gaztelekua ITXITA egongo da

13 barixakua

Ikusentzunezkoa

22:30 Bonbardaketaaren 75. urteurreana

Eibarko eta Elgoibarko bonbardaketa gertutik ezagutzeko bideo emanaldia eta hitzaldia, Gaztetxean.

14 zapatua

Ikastaroa

9:30 Autoen gidatze ekonomikoa

Ibilgailuetan energia aurrezteko ikastaroa. Mendaroko udaletxean.

Ikastaroa

10:00 Bioenergetika

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Gernikako akordioa

16:30 Autobusa

Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa, Txankako zubian.

15 domeka

Musika

10:15 Udal Musika Bandaren kalejira

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian Egitaraua:

- *Acrobatas del espacio*, martxa (J. Bergeim)

- *Cancion India*, Sadko opera (Rimsky Kossako)

- *Happyland*, (Yuki Ueno)

- *Bohemian Rhapsody* (Freddy Mercury)

- *Film festival* (H. kolditz)

- *Danzas armenias* (Alfred Reed)

17 martitzena

Politika

19:00 Herri-batzarra

Ezker Abertzaleak alderdiaren plangintza eta berregituraketa azalduko ditu, Kultur Etxean.

20 barixakua

Antzerkia

20:30 'Panpina puzgarriaren hilketa'

Ados Teatroak aurkeztuta, Herriko Antzokian.

OKINDEGIA

15 domeka EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

13 Zabaleta
14 Barrenetxea
15 Barrenetxea
16 Ibañez
17 Yudego
18 Etxeberria
19 Fernandez

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Etxeberria
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego
Etxeberria
Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638


Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«The artist»

13, barixakua: 22:15
14, zapatua: 19:00/22:15
15, domeka: 19:00
16, astelehena: 21:30



«The artist» Zuz.: Michel Hazanavicius.

Frantzia, 2011. Iraupena: 98 min. Generoa: Drama, komedia. Aktoreak: Jean Dujardin, Bérénice Bejo, John Goodman, James Cromwell. Hollywood, 1927. Zine mutuko aktore ezaguna da Gerge Valentin, eta ondo doakio bizitza. Zinemara soinua iristean, baina, gauzak erabat aldatuko zaizkio, eta jendeak ahaztu egingo du. Une horretan, Peppy Miller aktore gaztea izango da izar berria.

«Arrugas» Zuz.: Ignacio Ferreras.

Espainia, 2011. Iraupena: 89 minutu. Animazioa, drama. Paco Rocaren *Arrugas* komikian (2008an Espainiako komiki saria jaso zuen) oinarritutako filma da. Zahar-etxe batean bizi diren Emilio eta Miguel adiskideen istorioa kontatzen du pelikulak. Emiliok alzheimer gaixotasuna dauka, eta Miguelen laguntza jasoko du zahar-etxeke azken solairu beldurgarria eraman ez dezaten.

«Viaje al centro de la tierra 2»

15, domeka: 16:30

«Arrugas»

(Ongarri zine-kluba)

19, eguna: 21:30



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar

Ate irekien eguna

Apirilak 24

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak

Inglaterra - Alemania

Portaleako Erakusketa

Apirilak 20-29



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

EVORA
RELAX ESERLEKUA
2 MOTORE POWER LIFT
PROMO 799€



SOFA
2 POWER LIFT RELAX MOTORIZATU ETA
MOTORRAREKIN ZABALDU DAITEKEEN
ESERLEKU BAT **PROMO 2.099 €**



Berria!

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Wältschlaf

OLDSAN

terxy

Oihana
Ore geriatikoen

KEYTON
Mesajedun besauekik





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

